

## Enplegu eta gizarte politiketarako Sailburuaren bisita

2015/11/11

Angel Toña, enplegu eta gizarte politiketarako sailburuarekin batera, Jose Blasco, enplegu eta lan sailburuordea, Alfredo Ispizua, gizarte ekonomia zuzendaria, Juan Ibarretxe, enplegurako eta diru-sarrerak bermatzeko prestakuntza zuzendaria eta Noemi Ostolaza, kabinete eta komunikazio zuzendaria izan dira MONDRAGON UNIBERTSITAEAN, gaur goizean.

Unibertsitatean, Vicente Atxa errektoreak, Carlos Garcia, goi eskola politeknikoko zuzendariak, Lander Beloki, enpresagintza fakultateko dekanok, Begoña Pedrosa, humanitate eta hezkuntza zientzien fakultateko dekanok eta Idoia Peñacoba, idazkari nagusiak hartu dituzte.

Hasieran izan duten bileran, unibertsitatea aurkezteaz gain, lankidetzaren programen inguruan hitz egiteko aukera egon da, ondoren, Lanbide-MONDRAGON UNIBERTSITATEA orientazio zerbitzua bisitatu dute eta bukatzeko, goi eskola politeknikoko laborategiak ikusi dituzte.

